


# Sagardoaren aldarria festa giroan



**Ruper Ordorikaren kontzertuarekin aurkeztuko dute bihar Hernanin aurtengo Sagarrondotik ekitaldia; jaialdi nagusia otsailaren 26, 27, 28 eta 29an egingo da Urnietan, Usurbilen, Astigarragan eta Hernanin**

|| Nagore Rodriguez

**Sagardoaren denboraldia** duela egun batzuk hasi zen, eta jada nabari da jai giroa Sagardoaren lurraldea osatzen duten herrietan. Hemendik aurrera, sagardoaren kultura jaiarekin uztartuko da. Horren adibide da Sagarrondotik ekimena. Sagardoaren kultura mundura zabaltzea du xede, eta helburu horrekin ospatu zen iaz lehen aldiz. «Munduaren begietara euskaldunon ondareetako bat dena agertu nahi du, Sagarrondotik ekimenak mundura zabaltu nahi du sagardoaren kultura», diote antolatzaileek.

Iaz antolatu zen Sagarrondotik jaialdia lehen aldiz, eta izandako arrakastaren ondoren, Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarteak aurtengo ekitaldia antolatu nahi izan du, otsailaren 26, 27, 28 eta 29an egingo da festa erraldoia. Sagardoaren lurraldea osatzen duten herrietaraino iritsiko da jai: Urnieta, Usurbil, Astigarraga eta Hernaniko udalerrietaraino, zehazki.

Hori da, hain zuzen ere, aurtengo berrikuntza nagusienetarikoa, festa herri guztietara zabalduko dela. Izan ere, iaz Hernani izan zen jaiaren gune nagusia, nahiz eta aipatutako beste lau udalek babestu zuten jaialdia. «Harrera oso ona izan zen, 2003ko martxoaren 21, 22, eta 23an ospatu zen eta 25.000 lagun baino gehiago bildu ziren Hernanin», diote antolatzaileek.

Aurtengo ekitaldia bihar aurkeztuko dute Hernaniko kiroldegian, gaueko 22:30etatik aurrera. Aurkezpena borobiltzeko Ruper Ordorikaren emanaldia eskainiko du. Guztira 600 lagunentzako toki



|| Sagardorik, noski, ezin falta jaialdian.

izango da Hernaniko kiroldegian; sarrerak 10 euro balio ditu, eta bertan erosi ahal izango diren arren, jadanik Astigarragako Ikatzeta tabernan, Urnietako Zaldundegin, Usurbilgo Zendoaenean eta Hernanin Bodegan, Kitton eta Lete liburutegian eskuratu daitezke.

Denon den, jaialdi erraldoia otsailko azken asteburuan izango da. Antolatzaileek eskaintza zabala prestatu dute, haur, gazte eta helduen gozamenarako. «Izan ere, belaunaldiak uztartzea da jaialdiaren helburuetako bat, belaunaldiak beren artean kateatzeko soka sagardoaren kultura izango da; bere biziraupena ziurtatzeko modu egokia baita belaunaldiz belaunaldiko transmisioa».

Otsailaren 26an abiatuko da jaialdi erraldoia, Urnietako Sarobe antzokian Realari Sagardoaren Mezulariak ikurra emango zaio, «Europar zehar Gipuzkoaren izena zabaltzen ari delako iaz eginiko lan onaren ondorioz». Ondoren, Zaharregia, txikiagia olerki musika emaldia izango da.

Hurrengo bi egunetan, otsailaren 27 eta 28an, Hernani izango da jaiaren gune nagusia, bi kontzertu erraldoi antolatu dituzte, modan dauden taldeekin: besteak beste, Fito & Fitipaldis, Su Ta Gar, Orisha's, Fermin Muguruza & Kontrabanda, Ojos de Brujo eta Kuraia taldeak izango dira. Kontzertuak karpa handi batean egingo dira.

Otsailaren 28an baita ere, herriarteke herri kirol lehia bikaina jokatuko da Usurbilen. Pare pare jardungo dute Usurbil, Hernani, Urnieta eta Astigarragako ordezkariak.

Otsailaren 29a, egun handia izango da. Astigarragan Euskal Herriko II. Sagardo Erakusketak egingo da. Euskal Herri osoko 60 sagardogileren sagardoa dastatzeko aukera izango dute bertaratzeko diren guztiek. Euskal produktuen azoka, trikitilariak, dantzariak, eta bertsolariak ere ez dira faltako.



**NOIZ JOAN**

**Egitaraua**  
**URTARRILAK 24, LARUNBATA, HERNANI:**

Txotx denboraldiaren hasierarekin batera, aurkezpena kiroldegian:  
- Jardunaldien aurkezpena  
- Ruper Ordorikaren kontzertua  
Urtarrila eta Otsailean sagardo kata komentatuak Xabier Kamio enologoaren eskutik Urnieta, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo elkarte banatan

**OTSAILAK 26, OSTEGUNA, URNIETA:**

**INAUGURAZIOA SAROBEN:**  
- Harrera ekitaldia:  
- Sagardogileak, Kofradiak eta Elkarrekin Real Sociedad futbol taldeari Sagardoaren Mezulariak ikurra emango diote, Europan barrena Gipuzkoaren izena zabaltzen ari delako iaz eginiko lan onaren ondorioz.  
- Zaharregia, txikiagia agian olerki eta musika emanaldia (Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda)

**OTSAILAK 27, OSTIRALA, HERNANI:**

**MUSIKA JAIALDIA KARPA ERRALDOIAN:**  
- Fito & Fitipaldis (Euskal Herria)  
- Reincidentes (Andaluzia)  
- Su Ta Gar (Euskal Herria)  
- Orisha's (Kuba)  
12.000 pertsonentzako lekua duen karpa, Txozna guneak, Diska jartzaileak, Oilaskoak, bokatak, sagardo karpelak...

**OTSAILAK 28, LARUNBATA, USURBIL:**

**HERRI KIROLAK LEHIA PLAZAN:**  
- Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilen arteko lehia ikusgarria. (Txingak, sagar biltzea, zaku lasterketa, ingudea, aizkora, trontza, harri jasotzea, sokatira)  
- Sagardo dastaketa, taloak, txorixoa...

**OTSAILAK 28, LARUNBATA, HERNANI:**

**MUSIKA JAIALDIA KARPA ERRALDOIAN:**  
- Ari (Madrid)  
- Kuraia (Euskal Herria)  
- Ojos de Brujo (Katalunia)  
- Fermin Muguruza & Kontrabanda (Euskal Herria)

**OTSAILAK 29, IGANDEA, ASTIGARRAGA:**

**EGUN NAGUSIA EUSKAL HERRIKO II. SAGARDO MOSTRA**  
Goizeko 10:00etatik aurrera:  
- Euskal Herri osoko 60 sagardogileren mostra  
- Euskal herriko produktuen azoka  
Sagardoaren museo ibiltaria  
- 12:00tan Kata Komentatua Xabier Kamio enologoaren eskutik  
- 13:30etan Patxi Perez eta Iparraldeko dantzarien ikuskizuma Dantza Piko  
- 17:00etan Bertsolariak S.Lizaso, A.Egaña, A.Mendiluze, M.Lujanbio  
- Trikitilariak